

“Sekula berriro ez da ikasten bizitzako lehen urteetan bezain erraz”

Nuria Ferrer

Estimulazio goiztiarrean aditua

Adimena garatzeko adinik onena 0 eta 6 urte bitartekoa da, garai horretan plastikotasun handia izaten du-eta haurren garunak. Halaxe nabarmentzen du Nuria Ferrer-ek. Estimulazio goiztiarrean aditua da, eta ikastaro bat sortu du gurasoek ikas dezaten nola handitu haurren gaitasun intelektuala adin horretan. Glenn Doman ikertzailearen metodoan oinarritzen da horretarako, zeinak azpimarratzen baitu oso garrantzitsua dela gurasoek eta haurrek ongi pasatzea zeregin horretan. Aditu honek dioenez, gizaki orok jaiotzetik beretik gaitasuna du jenio bat izateko, horretarako behar diren aukerak edukiz gero.

Gure heziketa sistemak adin bat jartzen du eskolan hasteko. Zer nolako abantailak eta eragozpenak ditu? Eskola askotan 3 urtetan jartzen dute sartzeko adina, eta, hortaz, haurrak 6 urte bete arte itxaroten baduzu, arriskua duzu lekurik gabe gelditzeko. Arazoa gehiago da gizartea nola dagoen antolatua; pauso gehiago eman behar da familia eta lana bateratzeko bideetan. Finlandian (asko aipatzen da hango eredua, eskolan emaitza onak lortzen dituztelako), gurasoek erakusten diete irakurtzen haurrei, eta 6 edo 7 urterekin sartzen dira eskolan. Han bermatua dago eskolan emaitza onak lortuko dituztela, ongi irakurtzen ikasita baitoaz etxetik.

Zein litzateke adinik onena eskolan hasteko? Ama batek edo aita batek bere haurraren garapenean lor dezakeena ezin du berdindu ezein profesionalen lanak. Nire gomendioa da haurrak 6 urte bete arte harekin gozatzea eta hezte, edo gutxienez 3 urte egin arte, non garunaren bilakaera handiagoa den geroko edozein garaitan baino.

Heziketa goiztiarraren eta Doman metodoaren aldekoa zara. Zer eskaintzen du? Ikasketa leiho batzuk itxi egiten dira adin goiztiarretan landu ezean, adibidez atzerriko hizkuntzen azentua. Horregatik da garrantzitsua heziketa edo estimulazio goiztiarra. Glenn Domanek oso ongi zekien hori, eta bazekien, halaber, adin goiztiarretan inork ez ziola haur bati erakutsiko amak baino hobeto. Bi faktore horien konbinazioak eraman zuen ikastaro batzuk sortzera gurasoek laguntza jaso zezaten haurren bilakaera fisiko eta intelektuala lantzeko, eta onura handia lortzen zuten.

Zer egiten duzu arazo neuronalak dituzten haurrei laguntzeko? Haur guztiek, bai osasuntsuek eta bai arazo neuronalak dituztenek, beharizan berberak dituzte, ez bakarrik fisiologikoak edo emozionalak, baita neurologikoak ere. Garunak, oinarriko mantenua ez ezik, estimuluak ere behar ditu funtzionatzeko. Beharizan neurologiko horri bizitzako lehen urteetan hobeto erantzuten zaio estimulazio goiztiarrekin, eta hala egiten denean, hobetu egiten da haur guztien gaitasun fisiko eta intelektuala.

Nola handitu daiteke haurren adimena? Ama eta aita dira haurraren laguntzailerik onenak hori lortzeko, eta edozein familiaren esku dago. Adibidez, haurrari maiz hitz egitea azalpenak emanez eta hizkera aberatsa erabiliz, modu ona da hasteko. Horrekin batean, komeni izaten da egoki gauzatzea haurrari informaziozko estimuluak emango dizkioten jarduerak eta ongi pasatzea, jolasean bezala. Eta indartu egiten da gurasoen eta haurren arteko maitasun lotura.

Batzuek kritikatu egiten dute metodo hori, eta “erradikala eta oinarri zientifikorik gabea” dela diote. Askotan kritikatzeko da jakin gabe.

Domanek beti azpimarratu zuen oso garrantzitsua dela ongi pasatzea haurra hezten ari garela, haurraganako maitasuna eta errespetua adierazita; gurasoek eta haurrak ongi pasatzen ez bazuten, uztea hobe zela esaten zuen. Erradikala izatea al da hori? Oinarri zientifikoari dagokionez, 60 urte baino gehiago daramate Domanen Institutuek Filadelfian lanean haur osasuntsuekin eta garuneko lesioak dituztenekin. Han joan dira ikasiz zerk funtzionatzen duen hobeto adimena garatzeko. Orain CBCn dihardut ikerketan [Center for Brain and Cognition] Pompeu Fabra Unibertsitatean, eta ari naiz egiaztatzen eta azalpen zientifikoak aurkitzen hark egindako proposamen askorentzat.

Edozein izan al daiteke jenio bat? Gizaki orok du jaiotzetik jenio bat izateko gaitasuna. Baina horretara iristeko aukerak ez daude denen eskura. Esperientziak eta hein txikiagoan genetikak osatzen dute pertsona bakoitzaren adimena. Nerbio sistemen osaeran eta funtzionamenduan parte hartzen duen gene kopurua oso txikia da, neurona multzo normalaren eta konexio neuronalen zati txiki bat zehazteko behar denaren gutxieneko bat baino ez da, zeren zatirik handiena, inguruaren arabera egokitzeko moduan gelditzen da jaiostean.

Eta adin goiztiarra probestu ez duten haurrek? Neurogenesia sor daiteke, neurona berriak jaiostez gaitzeske bizitza osoan zehar garuneko zenbait guntan, hipokanpoan adibidez, zeinak lotura baitu ikaskuntzarekin. Beti dago hobetzeko aukera baina ez da izango bizitzako lehen urteetan bezain erraza eta hain emaitza onekin. Haurtzarotik bertatik estimulu ugariko inguru bat eta ikasteko aukerak eskaintzea da guraso batek bere haurarentzat egin dezakeen inbertsiorik onena.